

2.000 egun bete ditu Egunkariak

Euskaldunon Egunkaria, 1997-05-21: 3.

Egunkari euskaldunak ospatu ditu jada bere ohizko urtebetetzeak, sei, eta orain gomuta erromantiko hau dator: bigarren milakadako egunbetetzea ospatu nahi da, gainera. Une honetan ezin dugu aipatu gabe utzi Joxemi Zumalabek eta Joseba Jakak eman ziguten guztia. Haiek gogoan ditugula da esan beharreko lehendabiziko gauza horrelako efemeride batean.

Zazpigarren urtean aurrera doala, maite duen inork ez dio ukatuko kandelatxo bat zainduen argitan. Gutxiagogatik piztutzen ditugu euskaldunok ostikadaka ere, futboleak. Halakok denboraldian hamar gol sartu dituela, eta nahikoa da bere hutsak ahaztu (ez dira zenbatzen), eta soldata miloika igotzeko! Honek jartzen nau pentsakor. Zergatik dira golak hain garesti eta hutsak hain merke?

Golmetroarekin neurtutako mundu euskalduna alde batera utzita, zazpi urtez egunero Euskal Herri osoan gertatutakoa jaso, idatzi, goizeko ia oilarraren ordurako bi mila egunez Andoaingo idazlaritzan moldatu, Hernanin inprimatu eta euskal mundura zabaltzeko egin behar diren keinu eta bidaia guztiak egin ditu Egunkariako equipoak, hutsik egin gabe, publizitate gutxiko gasolinarekin gainera, gainerantzekoa bihotzak eragiten baitu. Baina bihotzak ezin du dena ahal. Hizkuntza bide den guztiak du aje bera. Gizartean larruaren kolorea bezala heredatuko bagenu hizkuntza, jaio ahala hitza seguratuko genuke euskaldunok, eta irakurtzen ikastea nahiko litzateke irakurle bat irabazteko. Baina mundua alderantzizko ahalmenarekin egina dago, dagoenez gero. Euskaldun gehienen euskalduntasun falta, hobeto esan, erdalduntasuna, izango dugu gure gaurko munduan arazo kultural nagusia. Gure administrazio autonomoak hau ulertzen ez duen bitartean, eta gaiak merezi duen hainbat laguntza eskaintzen ez duen bitartean, gure ahaleginak neketan bizi beharko du. Honek esan nahi du aurrerabidean pausoak ematen joan beharrean, lokaztuta utzi gaituzten sentipenarekin ibiliko garela.

Eta hala, noski, presupuestoa atzeraka badoa, azken hiru urteotan bezala, ezin dugu, nahi bezala, aurrerabide erosorik egin.

Eta, bidez, golik egin, ez horretarako abilezia falta zaigulako, beta da lan gehiagorako falta zaiguna.